

# EPAIMAHAIAREN AKTA

## HAUTAKETA-PROZESUA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako egonkortze-prozesua.

PLAZA/LANPOSTUA: Zaldibiako Udaleko, Aramako Udaleko, Altzagako Udaleko eta Gaintzako Udaleko Gizarte langilea.

OINARRIAK: 2022/12/27ko GAO.

## BILERAREN ZEHAZTASUNAK

**Bilera zenbakia: 1**

**Eguna:** 2024ko otsailaren 7a

**Lekua:** Zaldibiako Udala

**Bertaratu direnak:**

- Epaimahaiburua: Silvia Gomez Tolosa (ordezkoa)
- Idazkaria: Iñaki Arriaran Murgiondo
- Mahaikideak: Laxia Urteaga Usandizaga eta Itsaso Urretagoiena Arruabarrena.
- IVAPeko ordezkaria: Jone Herrero Azurmendi

## BILERAREN GAI ZERRENDA EDO XEDEA

- 1.- Epaimahaia eratzea.
- 2.- Izangaien merezimenduak baloratzea.

### 1.- Epaimahaia eratzea.

Goian aipatu kideak bertaratuta, izangaien behin betiko zerrenda begiratu eta abstentzio kasurik ez dutela azaldu dute.

Behar adina kide daudenez, epaimahaia eratutzat jo da.

### 2.- Izangaien merezimenduak baloratzea.

Lau hautagai aurkeztu dira, eta horietatik bi izan dira merezimeduak aurkeztu dituztenak. Jarraian, xede horrekin emandako epean eta adierazi moduan merezimenduak egiaztatzeko izangaiak aurkeztu dituzten agiriak aztertu ditu epaimahaiak; eta merezimendu horiek baloratu ditu, oinarri espezifikoaren baremoan ezarritako irizpideen arabera.

Hauxe da emaitza:

XX XXX 030K ARRIZABALAGA ETXEBERRIA, MARIA JOSE

- a) Esperientzia: orokorra (a.1.º) 60 puntu eta espezifikoa (a.2.º) 20 puntu.
- b) Titulazioak eta probak: 20 puntu

Guztira: 100 puntu

XX XXX 685P UNAMUNO MARCOS, NAIARA

- a) Esperientzia: orokorra (a.1.) 60 puntu eta espezifikoa (a.2.) 0 puntu.
- b) Titulazioak eta probak: 19,15 puntu

Guztira: 79,15 puntu

Aurrekoa ikusita, epaimahaiak hauxe erabaki du:

**Lehenengo.-** Aurkeztu eta egiaztatu diren merezimenduen behin-behineko balorazioa onestea eta behin-behineko emaitza horiek argitaratzea oinarrietan ezarritako moduan.

**Bigarren.-** Lehiakideei 10 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak egin ahal izateko.